

B euskararen BERRIPAPERA

Lanean hobea, txokoan hobea

Windows 98 eta Internet Explorer 4.0 euskaraz

Internet Explorer 4.0 nabigatzailea darman Win98ren euskarazko bertsioa kalean izango da hil honetan Euskal Herri osoan. Inork eskuratu nahi izanez gero, saltoki hauek ditu aukeran, joan eta erosteko: EL CORTE INGLÉS, EI SYSTEM COMPUTERS (Sabino Arana, 67 Bilbo) eta honako hipermerkatu horiek: EROSKI (Leioa, Vitoria-Gasteiz, Basauri, Barakaldo, Arrasate, Donostia, Iruña eta Tuter); ALCAMPO (Irun eta Oiartzun); PRYCA (Donos-

tia, Goierrri, Sestao eta Erandio) eta BEEF.

Lehendik euskaraz dagoen Windows 95ari jarraipena ematearren orain datorkigun Windows 98 bi modutara aurki dezakegu: batetik sistema eragile horren erabiltzaile berrientzako, eta, bestetik, dagoeneko erabiltzaile direnentzako bertsio-eguneratzea.

Win98 dagoeneko gaztelaniaz duten erabiltzaileek euskarakoaz ordezkatzeko eska diezaiokete Microsoft etxeari. Horrelakoetan material eta bidalketako gas-

tuak ordaindu besterik ez da egin behar.

Teknologia berriak direla eta, hizkuntzaren etorkizunerako oinarri-oinarrizkoak diren tresna horiek itzuli eta lokalizatzeko, hitzarmena izenpetu zuten joan den maiatzaren 8an Eusko Jaurlaritzak eta Microsoft etxeak. Lan horren finantzazioan parte hartu dute, halaber, hiru foru-aldundiek eta EUDELEK (Euskal Udalerrien Elkarte). Itzulpena, berriz, UZEL enpresak egin du.

OFFICE 2000

Esandako hitzarmen horren barruan ere itzultzen eta lokalizatzen ari da Office 2000. Pakete horren barruan izango dira, euskaraz, Microsoft Word, Excel eta Outlook. Datorren urteko ekainerako kalean izateko asmotan ari dira lanean. Produktu horiekin, beraz, euskaraz lan egin nahi duenak eskueran izango ditu merkatuan agertu berriak diren oinarritzko tresna informatikoak.

Windows 98 eta Office 2000 orain euskaraz izateak ziurtatu egiten du, nolabait, aurrerantzean ere, bertsio berrietan, euskarak izango duela bere tokia. Bestalde,

S U M A R I O A

- 1 Windows 98 eta Internet Explorer 4.0 euskaraz
- 2 Laburrak
Hou, pitxu hou!
Agenda
- 3 Eusko Jaurlaritzaren erabilera-plana onartuta
Kultura Ministerioko dirulaguntzak
- 4 Nobedadeak
Lehen begiratuan

hizkuntzaren industriaren eremuan ikertzen jarraitzeko bideak areagotu egingo ditu.

XUXEN 2.0, euskararen zuzentzaile ortografikoa

Zuzentzaile horren lehengo bertsioa Word 6.0ren euskarazko bertsioan erabili dugu askok eta askok. Orain bertsio berri-tua dugu eta, testuak euskaraz zuzen idazteko oinarritzko tresna den bigarren bertsioak lexiko zabalagoa barneratzeaz gain, Euskaltzaindiaren arauak ere txertatuta ditu.

Hemendik aurrera, XUXEN 2.0 zuzentzailea Internet-en egongo da eskuragarri (www.euskadi.net) eta erabiltzaileek hartu eta beren PCra jaitsi ahal izango dute.



LABURRAK

Euroa Estatuko hizkuntza ofizial guztietan

Espainiarako egingo diren euro bileteetan eta txanponetan gaztelania ez ezik, katalana, euskara eta galegoa ere erabiltzea eskatu dio Kataluniako Legebiltzarrak Diputatuen Kongresuari.

Estatu bakoitzak bere jaulkipena egingo du eta alde batean herrialdearen izena agertuko da. Kataluniako Legebiltzarrak eskatu du Espainia hitzaz gain (gaztelaniaz eta galegoz ofizialez), Espainia (euskaraz) eta Espanya (katalanez) ere agertzea. Proposamen horren alde ERC,



CiU, PSC, Iniciativa per Catalunya (IC) eta PI (Partit per la Independència) alderdiak agertu dira. PP abstenitu egin da, eskaerarekin bat datorrela esan arren.


Eremu Urriko Hizkuntzen inguruko jardunaldiak

Abenduaren 14an eta 15ean Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunari buruzko jardunaldiak izango dira Innsbrucken (Austria). Eztabaidak lau saioeren inguruan bilduko dira: abenduaren 14an, Europako Eremu Urriko Hizkuntzen Bulegoko Idazkari Nagusia, Dónall O'Riagain jauna, Gutunak Europako Batasunean duen garrantzi politikoaz arituko da; gero, Fernando Albanese-k, Europako Kontseiluko arduradun izandakoak, Europako Gutunaren nazioarteko zereginari buruz hitz egingo du. Bigarren saioan, Merkator erakundeko partaideek eta Finlandiako Gobernuko ordezkariak hartuko dute parte, Holandan eta Finlandian Europako Gutuna ezartzearen inguruan. Bestalde, Bernard Poignant-ek, izen bereko txostenaren egileak hain zuzen, Frantziak Gutuna sendesteko dauden aukerei buruz arituko da. Jarraian, Galesko Hizkuntza Kontseiluko zuzendariak gai bera jorratuko du, oraingo honetan Erresuma Batuari dagokionez. Abenduaren 15ean Gutuna estatuen egoera anitzari egokizeari buruz jardungo du Sigve Gramstad-ek, eta Gabor Kolumban errumaniarrak tokiko eta eskualdeko esparruei ekingo die. Azken saioan, Moreno Bucci eta Vesna Crnic-Grotic irakasleek, Gutunaren ezarpena zaintzeko lege-tresnak aztertuko dituzte.

Hou, pitxu hou!

Urte Sasoiak bildumaren bigarren emaitza

Ikastolen Elkarateak eta Labayru Ikastegiak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailkordetzarekin eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko foru-aldundiekin lankidetzan *Urte Sasoiak* programari ekin zion 1997an. *Urte Sasoiak* bildumak urte-sasoi bakoitzari lotutako herri-tradizioa batu eta zabaltzea du helburu. Euskal Herri osoko kanta, dantza, ohitura, sineskera, errito eta abar, erraz ulertzeko moduan eman nahi ditu ezagutzera. Bilduma honen lehen lana, *Oles ta Oles*, iaz kaleratu zen Pantxoia eta Peio bikote sonatuarekin. Gabonetako eta neguko herri-kantak biltzen ziren bertan, Euskal Herriko hainbat eta hainbat ohituraren islada: San Nikolas, Marijesiak, Eguberri-gaua, Natibitatea, Inuzente eguna, Gabon Zahar, Urte Berri eta Erregeen eguna. Bigarren lanak ere dagoeneko argia ikusi du *Hou, pitxu hou!* izenburupean. Negu-amaierako eta udaberri-hasierako kanta, dantza eta ohiturak biltzen dira: Inauteriak, Kandelario, San Blas, Santa Ageda, Eguen Zuri eta abar. *Hou, pitxu hou!* lan hau hiru euskarritan aurkezten da: bideoa, kaset-CD eta liburua.



Oles ta Oles nahiz *Hou, pitxu hou!* haur eta gazteentzat daude pentsatuta, bereziki, tradizioak eta berezitasunak erakargarriago bihurtu nahi baitira publiko horrentzat. Hori dela eta, lana kaleratzea erabaki aurretik irizpide jakinei jarraitzen zaie: alde batetik haurrentzako material egokia izatea; bestetik, materialaren aintzinakotasuna, zenbat eta zaharrago aberatsagoa izan daitekeela uste baita; azkenik, lurraldekotasunaren irizpidea, Euskal Herriko lurralde guztiak kontuan izanik, ahalik eta ikuspegi zabalena eskaintzeko ahalegina egiten da eta. *Hou, pitxu hou!*, Amaia Zubiriaren ahotsean grabatua, salgai izango da abendu-urtarrilerako ohiko liburudendetan.

AGENDA

XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak martxan du XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari kanpaina. Hainbat ekintza antolatu dira kanpaina horren barruan, baina ekitaldi nagusia abenduaren 26an egingo da Euskal Herriko bost estadio nagusietan aldi berean: Bilboko San Mames, Iruñako Sadar, Donostiako Anoeta, Miarrizteko Agilera eta Gasteizko Mendizorrotza.

Manuel Larramendi Bazkunaren laguntza-deialdiak

Historia, gizarte, kultura edo hizkuntza gaietan jakingarri gerta litezkeen saiakeretarako laguntza-deialdia egin du Manuel Larramendi Bazkunak, Euskal Herriko, Gipuzkoako eta, bereziki, Beterri-Aiztondoko herrietako oroimen historikoa biziberritu eta osatzeko. Proposamenak aurkezteko azken epea abenduaren 30a da.

★ Ahoz aho, belanez belan ... hil honetan non?

Durangon, azaroaren 29tik abenduaren 13ra. Erakusketa bat Durangoko Arte eta Historia Museoa egongo da, eta bestea Kurutzia ikastolan eta San Antonio ikastetxean, bakoitzean astebetez.



Eusko Jaurlaritzaren erabilera-plana onartuta

Ezagutzatik erabilerara iristeko tresna

1 990ean hasi zen Eusko Jaurlaritza, Euskadiko Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioekin batera, administrazio guztien hizkuntza-plangintzaren prozesua bideratzen eta, aldi berean, bere burua euskalduntzen. Ordutik hona, ahaleginik handienak langileak euskalduntzen eta alfabetatzen egin dira, bai herri-administrazioetan eta bai Eusko Jaurlaritzan ere. Hizkuntza-prestakuntzaren emaitzak onak izan badira ere, ez da beti lortu euskaraz dakitenek ahoz edo idatziz erabiltzea. Izan ere, administrazioan, gizartearen beste arloetan bezala, euskaraz aritzeko hizkuntza horretan jardungo duen solaskidea behar baita aldamenean. Plan honek, beraz, euskara erabiltzeko baldintza egokienak eskuratu nahi ditu, arian-arian, herritarrek euskara erabiltzeko dituzten eremuen artean Eusko Jaurlaritza ere egon dadin.



Atal elebidunak

Erabilerako baldintza egokiak eskuratzeko, jendaeurreko atalei, gazteriarekin harremanetan daudenei eta gizarte-izaerakoei eman

zaie lehenetsuna Planean, eta horien artean, hizkuntza-egoerarik onenean dauden atalak hobetsi dira, baldintza aproposak lortutakoan elebidun izenda daitezten. Hori horrela, egoera-aniztasuna kontuan, atalak elebidun izendatzeko epeak aurreikusi dira, 1998, 1999, 2001 eta 2002 urteak hain zuzen.

Normalizazioko ekintzak

Euskara erabiltzeko zailtasunak gainditu eta baldintza egokiak lortzeko, honako normalizazio-ekintzok jarriko dira martxan, elebidun izendatu beharreko atalak lehenetsiz:

- Derrigortasun-data gehiago jartzea lehenetsitako ataletan eta lanpostuetan.
- Hizkuntza-prestakuntza ematea ikasi beharra duten guztiei.
- Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak ematea.
- Itzulpen-beharrizanei erantzuteko bideak lantzea.
- Dinamizazio-ekintzak martxan jartzea, euskara erabiltzeko ohi-turarik eza edo segurtasun-falta gainditzeko, esaterako.

Plan hau ez da langileentzat bakarrik

Plan honen oinarria eta abiapuntua langileak dira bai, baina erakunde osoaren apustua dago atzean:

- Erakunde osoaren eguneroko jardunean euskarari behar den lekua egingo zaio, hala nola, kontratazioetan, dirulaguntzetan, argitalpenetan, irudi-gailetan,

Kultura Ministerioko dirulaguntzak

Madrilgo Gobernuoko Kultura Ministerioak 5.468.595 pezeta banatu ditu aurten Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialen arteko literatur lanen itzulpenetarako eta argitalpenetarako.

Euskarari eta Euskal Herriari loturiko produktiorako 3.500.000 pezetatik gora bideratu dira, hain zuzen ondoko argitaletxeek aurkeztutako proiektuetarako: Acento Editorial, Joan Mari Irigoienek *Babilonia* gaztelaniaz argitaratzeko; Hiru Argitaletxea, Pablo Sastreren *Gauzak Apur bat Konplikatu* dira, Juan Luis Zabalaren *Galdu Arte*, Patxi Iturregiren *Haize Kontra* eta Xabier Mendigurenen *Berriro Igo Nauzu* obrak gaztelaniaz jarri eta argitaratzeko; Desclée de Brouwer, Julia Otxoaren *El Mundo en una Manzana*, Seve Callejaren *La isla de los esclavos felices* eta Josep Gorrizen *Inquietud a l'aula 51* euskaraz argitaratzeko; Ediciones de la Magrana, Bernardo Atxagaren *Zeru horiek* eta *Un traductor en París y otros relatos* katalanez argitaratzeko; eta, azkenik, Euskal Liburu eta Kantuen Argitaldaria, katalanezko hiru obra euskaraz jarri eta argitaratzeko.

jendaeurreko ekitaldietan eta abar.

- Planeko neurri guztiak martxan jarri eta dagokion jarraipena egiteko, antolatutako neurriak hartuko dira Jaurlaritzan.

Hizkuntza-politikako agenteen sarea


Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Hizkuntza-politikako agenteen sarea izeneko programa jarri du abian, Europako zenbait hizkuntza-komunitatetako erakunde eta agenteen artean lankidetzak-hitzarmenak garatu eta elkarlanean egitarauak gauzatzeko. Programa honen bitartez, Europako Batasuneko estatuetan hizkuntza-politikan diharduten agenteen elkar ezagutza bideratzeko eta agenteek nahiz dagokien erakundeek dituzten esperientziak nahiz ezagupenak trukatzeko modua egin nahi da.

Horretarako, besteak beste, bi asteko egonaldiak antolatu dira gure Autonomia Erkidegoan, programan parte hartuko duten hizkuntza-politikako erakundeetako ordezkariarentzat, bertatik ezagut ditzaten euskararen normalizaziora begira dauden helburuak, irizpideak, egitarauak eta prozedurak.

Programaren lehen aldia Catalunyako Generalitatek eta Galiziako Xuntak hartu dute parte, bina teknikariren bitartez. Gerora, urtarrilean hain zuzen, Languedoc-Roussilloneko Kontseiluak, Atlantiko aldeko Pirinioetakoak, Euskal Kultur Erakundeak eta Bretañako Kultur Erakundeak hartuko dute parte. Hau guztia aurrera eramateko, Europako Batzordearen XXII. Zuzendaritza Nagusiaren dirulaguntza jaso du Hizkuntza Politikarako Sailordetzak.

Nobedadeak

Euskal Editoreen Elkartearen eskutik, Klasikoak bildumako ale berri bi datozkigu: Ana Toledok moldaturik, Txomin Agirreren *Auñemendiko Lorea*, zazpigarren mendeko Ipar Euskal Herrian kokaturiko kondaira-nobela batetik, eta, bestetik, Patri Urkizuk prestatuta, Jean Baptiste Constantinen *Haritxabalet, Don Juan eta bere adixkidiak*, Santa Garaziko apezari buruzko istorio eta gorabehera irragarriak.



Literatura Unibertsala bilduman, berriz, Borges en *Ipuin hautatuak*, Ismail Kadareren *H. dosierra* eta Gogolen *Arima hilak* datozkigu.

Jorge Luis Borges en *Ipuin hautatuak* liburuan 26 pieza bildu dira, mende honetako literatur eredu aldatu dutenak hain zuzen. Idazle kosmopolita, entziklopedikoa eta idazkeraz guztiz berea duen argentinarraren unibertsal honek literatur generoen mugak aldatu zituen, bai eta fantasia hut-saren eta imajinario sortzailearen arteko bereizkuntzak ere.

Ismail Kadare albaniar idazlearen *H. dosierra* liburuak mila urte luzez dirauen albaniar eta eslaviarren arteko borrokaren berri ematen du. Sailak, mugak, larreak, errekek, dena dute liskarbide. Pil-pilean dagoen gaia oraintxe. Kadare bera Parisen bizi da erbestera gaur egun.

Pavel Ivanovitch Txitxikov, *Arima hilak* obrako protagonista, herriz herri dabil bere "negozio bitxia" egiten, eta, bidaia horretaz baliaturik, askotariko pertsonaiak erakusten dizkigu Nikolai Vasilievitch *Gogolek*. Hor aurkituko ditugu lurjabe zabar arduragabea, etxeokonde goganbehartsua, gazte festazale txoriburua, administratzaile alferra, funtzionario ustela, agintari zorrotz errukigabea, burokrata grisa. Gogolek pertsonaien izaerari begiratzen dio, eta izaera hori unibertsala da, edozein tokitakoa eta garaitakoa.



Lehen begiratuan

Pamiela argitaletxeak argitaratu berria du, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Galtzagorri elkarteari emandako dirulaguntza bati esker, Etxanizek eta Marijose Olaziregik egindako *Euskarazko Haur eta Gazte Literaturako Idazleen Katalogoa*. Haur eta gazteentzako literatur lanak egin dituzten hogeita bi idazleren berri eskaintzen da Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. Hitzaurrean azaldutakoa hona ekarriz, idazle horiek ederki erakusten dute azken hogeita urteotan literatur genero honek izan duen bilakaera eta hobekuntza; egileen iritziz, euskal kulturgintzaren arlorik emankorrenetakoa eta kalitateari dagokionez inguruko literaturen parekoa.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezaguneri bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako
Sailordetza**

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.: